



Andoaingo Udala

EUSKARA ZERBITZUA

Lankidetza Hitzarmena

Andoaingo Udalaren eta Euskaraz Kooperatiba Elkartearen (Andoaingo AEK euskaltegia) arteko lankidetza hitzarmena.

Andoainen, 2026ko uztaila

Bildurik:

B atetik, **Marta Lasa Goñi** andrea, Euskararen Normalizaziorako lansaileko Zinegotzi Ahaldun gisa, Andoaingo Udalaren izenean eta ordezkari gisa, Toki Jaurpideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legean xedatutakoaren arabera.

Eta bestetik, **Euskaraz Kooperatiba Elkartea (AEK)**., F-95222816 IFK zenbakiduna eta egoitza Andoainen duena, Plazaola kalean, egintza honetan **Iñaki URQUIJO VELASCO** jaunak ordezkaturik, helburu hauetarako helbidea Bilboko Perro kaleko 1. Zenbakian duena.

Hitzarmen honek indarrean den Andoaingo Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoarekin bat dator, hau da, 2026ko maiatzaren 27ko 1500/2026 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onartutakoarekin.

Halaber, hitzarmen honek jarraitzen du Andoaingo Udalean indarrean dagoen Dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, Udalbatzak 2014.03.27an onartu eta 2014.05.27an GAOn argitaratuta.

Bertan da baita ere Udaleko Idazkaria den **Unai Rekondo Pérez jn.** egintzaren fede emateko.

Bi aldeek elkarri behartzeko nahikoa gaitasun juridiko aitortzen diote eta jarraian aipatzen denaren arabera ekiten dute:

Administrazioko aurrekariak

1. Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.
2. 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeek aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako dirulaguntzak zuzenki emateko aukera.
3. 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeek aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.
4. Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 7.5. artikuluan jaso-



Lankidetza Hitzarmena

tzen da toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituztela. Era berean, otsailaren 22ko Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilra normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren 14.1. artikulua zehazten du euskal sektore publikoko entitateek, beren eskumenen esparruan, hitzarmenak sinatu ahal izango dituztela beste entitate publiko edo pribatu batzuekin, euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko.

5. Andoaingo Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2014ko martxoaren 27an onartutako Dirulaguntzak ematea arautzeko Udal Ordenantzaren 11.1.c) artikuluan jasotzen da emakidak zuzenean egin ahal izango direla ***“Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten beste diru-laguntzak, edo bere deialdi publikoa eragozten duten behar bezala justifikatutako beste batzuk”***.
6. Euskaraz Koop. S. irabazi asmorik gabeko lan-elkartuko kooperatiba gisa eratu zen 2002ko abuztuaren 14an, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan 2002.0.037 inskripzio zenbakia dauka, Kooperatibaren jardura Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen printzipio eta Xedapenen arabera. Estatutuetan honako helburua jasotzen da: *“euskal kulturaren eta euskararen sustapena eta zabalkundea, eta euskararen irakaskuntza”*.
7. AEK euskaltegiaren autoikaskuntzarako ikasgelaren funtzionamendua finantzatzeko ekarpenak egiteari ekin zion Andoaingo Udalak 2002tik. Horren arrazoa da HABEren finantzaketa ikasleen asistentziaren araberakoa izaten dela, hau da, % 100eko asistentziatik beherakoak ekartzen du dirusarreraren murrizteak, eta, ondorioz, euskaltegian defizita sortzea. Bide horretan, 2015ean Udalak eta AEKk lankidetza hitzarmena sinatu zuten ekarpen horiek arautzeko eta hitzarmen hori berritzen joan da orain arte.
8. Andoaingo Udaleko Udalbatzak, Osoko Bilkuran batzartuta, 2020ko ekainaren 25ean izandako ohiko batzarraldian, aho batez, onartu zuen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2020-2025) dokumentuan, Helduen euskalduntze-alfabetatzea esparruan, elebazarren zakua gero eta txikiagoa izateko bidean, euskaldun berriak sortzen jarraitzeko planteatzen diren ekintzen artean, honakoak azaltzen dira:

3.1.2. *“Herriko euskaltegiaren jarduna errotik berrindartzea herriko helduen euskalduntze premietara egokituz, eta egokitze horretan kolaboratzea”*

3.1.3. *“Herriko euskaltegiko ikaskuntzako eskaintza integrala bermatzeko laguntzak ematea (autoikaskuntza...)”*

3.1.6. *“Euskara ikasteko eta euskara gaitasuna sendotzeko premia eta sentiberatasuna zabaltzen jarraitzea”*.

9. Andoaingo Udaleko Udalbatzak 2026ko urtarrilaren 29an eginiko batzarraldian 2026ko aurrekontuan 1.0600.481.335.00.03 (569) zenbakia duen dirulaguntza izenduna aurreikusi da EUSKARAZ KOOP. S.-ren (Andoaingo AEK euskaltegia) alde, euskal



Andoaingo Udala

EUSKARA ZERBITZUA

Lankidetza Hitzarmena

kulturaren eta euskararen sustapena eta zabalkundea helburuarekin.

Horregatik, bi aldeak ados daude hitzarmena sinatzeko, eta honako oinarrien arabera egingo dute:

Hitzbaketak

LEHENA: Hitzarmen honen xedea da Euskaraz Kooperatiba Elkarteari (Andoaingo AEK euskaltegia) laguntzea honako esparruetan:

- Autoikaskuntza gelarako.
- 2026ko Korrika ospatzeko antolatu dituen ekimenak.

BIGARRENA: Euskaraz Kooperatiba Elkartea (Andoaingo AEK euskaltegia) honako betebeharrak ditu:

- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Udal organo eskudunak edo udal kontuhartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.
- Generoaren araberako diskriminazioagatik zigortuta ez izana.
- Onarpen-prozesuetan eta funtzionamenduan sexuagatik ez diskriminatzea

HIRUGARRENA: Autoikaskuntza gelaren funtzionamendurako dirulaguntza honako baldintzen arabera izapidetuko da:

- 2025-26 ikasturtean ibilitako ikasle andoaindarrek parte hartu ahal izango dute.
- Andoaingo Udalak bere gain hartuko du, ikasleen asistentzia % 100etik % 60 rako tartean gertatzen denean, ez gutxiago. Beraz, asistentzia %60 baino gutxiagokoa izateak ekar lezakeen defizita ez du bere gain hartuko Udalak.
- Dirulaguntza gehienez **500 eurokoa** izango da 2025-26 ikasturterako.
- Dirulaguntzaren **ordainketa** Andoaingo AEK euskaltegiak 2025-26 ikasturtean bere autoikaskuntza gelak sorturiko sarrera eta gastuen likidazioa aurkeztu ondoren egingo du Udalak. Likidazioan jasoko dira ikasle bakoitzaren asistentzia, nahiz matrikulengatiko eta HABEren finantzaketagatiko diru-sarrerak.

LAUGARRENA: 2026ko Korrika ospatzeko Andoainean AEK euskaltegiak antolatuko dituen ekimenek honako baldintzak bete beharko dituzte:



Andoaingo Udala

EUSKARA ZERBITZUA

Lankidetza Hitzarmena

- Andoaingo Udala laguntzaile gisa agertuko da ekimenetan eta horien inguruan egingo diren komunikazio guztietan: eskuorriak, iragarkiak eta abar. Era berean, Andoaingo Udalak ekimen horiei lotutako jendaurreko aurkezpenetan antolatzaileekin batera aurkezteko aukera izango du.
- Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea, erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna babestuta.
- Elkarrekin kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, eta 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, aurrekoa aldatzen duena) bai elkarrekin baita zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.

Dirulaguntzaren ordainketa, guztira eta gehienez **4.653 €**koa, honela izapidetuko da:

- Dirulaguntzaren **ordainketa** egingo da behin 2026ko Korrika ospatzeko AEK euskaltegiak Andoainen antolatutako ekintzen memoria eta gastuen egiaztagiria aurkeztu ondoren, betiere irailaren 30 baino lehen. Justifikazioa azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorreko 30. artikuluan xedatutakoaren arabera izango da eta gastuak egiaztatuko dira ordainagiriaren edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.
- Jarduerak, dirulaguntzaz gain, norberak dituen dirusarrerekin edo bestelako dirulaguntzekin edo baliabideekin finantzatu direnean, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den dirusarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.
- Andoaingo Udalak, euskara lansaileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du, dirulaguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.
- Dirulaguntza 60.000,00 €-tik beherakoa denez, zuriatarako kontu laburtua erabil daiteke. Jarduera osoa eta dirulaguntzaren gastu osoa zuritu beharko da

BOSGARRENA: Dirulaguntzaren ordainketak Euskaraz Kooperatiba Elkarrekin (Andoaingo AEK euskaltegia) **Laboral Kutxa** aurrezki erakundean zabalik duen **ES66 3035 0060 42 0600109602** zenbakiko kontu korrontean egingo ditu Andoaingo Udalak, betiere egiaztatu ondoren Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela.

SEIGARRENA: Aipatu dirulaguntza 2026ko aurrekontuaren 1.0600.481.335.00.03 (569) zenbakiko dirukontu izendunaren kargura ordainduko da, bi unetan, ekimenak burututa eta antolatzaileek aurkeztutako memoria eta gastuen justifikazioa honako datetarako aurkeztu ondoren:

- Korrikaren memoria eta gastuen justifikazioa: 2026ko irailaren 30ean.
- Autoikaskuntza gelaren eta bestelako ekimenen memoria eta gastuen justifikazioa: 2026ko abenduaren 10ean.

Andoaingo Udalak, euskara teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta dirulaguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza



Andoaingo Udala

EUSKARA ZERBITZUA

Lankidetza Hitzarmena

eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

ZAZPIGARRENA: Berdintasun irizpideak:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoa betetzeko, dirulaguntzak ematean ezarritako betebeharrak bete direla justifikatzeko memorian sexuaren arabera bereizitako informazioa emango zaie emandako zerbitzuaren azken onuradunei edo erabiltzaileei, erakundearen titularrei eta erakundeko plantillari, eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatutako erakundeari.

Era berean, sortzen diren dokumentu eta euskarrietan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiliko da irudi eta hizkera mota guztietan.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmen honek arautzen duen dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten eta bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozen bestelako dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabideekin.

Dena den, dirulaguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Andoaingo Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako dirulaguntzak edo laguntzat hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio egokitu ahalko litzaiokeen edozein laguntza edo dirulaguntza motari, Udaleko lansailek edo organismo autonomoek dirulaguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala eta guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan dirulaguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen honek urtebeteko indarraldia izango du, berau sinatzen den egunetik kontatzen hasita

HAMARGARRENA: Dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du dirulaguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balitz, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzan eta Legean. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

- Bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea, ezingo balitz edo interesik ez balego lana garatzen jarraitzeko, izan proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arrazoiengatik edo behar bezala justifikaturiko bestelako zioengatik.
- Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta araubide juridiko-administratiboa erabiliko da berau interpretatu eta garatzeko; izenpetzaileek berariaz men egiten diote administrazio auzietarako jurisdikzioari.

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmen honetan xedatzen ez diren alderdi guztietan Andoaingo Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzak agindutakoari eta dirulaguntzei buruzko



Andoaingo Udala

EUSKARA ZERBITZUA

Lankidetza Hitzarmena

azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak agindutakoei egingo zaie men

Eta ados daudela adierazteko, bertaratutakoek lankidetza hitzarmen hau sinatzen dute, goian adierazitako datan eta tokian.

Udalaren izenean
Marta Lasa Goñi

EUSKARAZ KOOPERATIBA ELKARTEA
Iñaki Urquijo Velasco

Idazkaria
Unai Rekondo Pérez



EKS | CSV: ESKU5823e78d-3f5b-4324-a8e7-dbe6f7f26bbd

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>